

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	LEHEN LAGUNTZA (zeharkakoa)	Iraupena	40
Kodea	MF0272_2		
Lanbide-arloa	Kirol-jarduera fisikoak		
Lanbide-eremua	Prebentzioa eta sendatzea		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ur-ingurune naturaletako sorospena	Maila	2
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Uretako oinarrizko trebetasun eta abileziak (zeharkakoa)	Iraupena	40
	Uretan igeri egiteko teknika espezifikoak (zeharkakoa)		80
	Ur-ingurune naturaletan istripuak prebenitzea		60
	Ur-ingurune naturaletan istripua izan dutenak erreskatatzean igeri egiteko teknikak eta kondizio fisikoa		30
	Ur-ingurune naturaletan istripua izan dutenak ateratzea eta lekualdatzea.		90
	Ur-ingurune naturaletako sorospeneko lanekoak ez diren lanbide-jardunbideen modulua.		80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0272_2 Istripu edo larrialdi-egoeretan lehen esku-hartzaile gisa laguntzea.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Lehen esku-hartzaile gisa ematen den laguntzaren ezaugarriak identifikatzea.

EI1.1 Urgentziaren, larrialdiaren eta katastrofearen kontzeptuak definitzea.

EI1.2 Urgentzia- eta larrialdi-sistema integralaren kontzeptua azaltzea, eta larrialdi-sistemen antolaketa deskribatzea.

EI1.3 Oinarrizko medikuntza- eta osasun-terminologia erabiltzea.

EI1.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, istripua izandako pertsonak manipulatzaren ondorioz gerta litezkeen lesioetatik norbera babesteko teknikak aplikatzea.

EI1.5 Larrialdietako botikinaren gutxieneko edukia eta substantzien eta sendagaien jarraibideak deskribatzea.

A2: Hasierako balorazioko teknikak aplikatzea, ezarritako protokoloari jarraikiz, istripua izan duenarengana modu egokian iristeko eta ingurune segurua sortzeko.

EI2.1 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean:

- Istripua izan duenarengana iristeko modurik onena identifikatzea eta justifikatzea.
- Arriskuak identifikatzea.
- Eremua prozedura egokiaren arabera babestea.
- – Istripua izan duenarengana iristeko behar diren maniobrak egitea.

EI2.2 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, istripua izan duenaren hasierako balorazioa egiteko jarduerajarraibideak betetzea, protokoloaren arabera.

EI2.3 Bizi-arriskuko egoerak identifikatzea, eta egoera horietarako jarduerak definitzea.

A3: Bizi-euskarriko teknikak aplikatzea, ezarritako protokoloaren arabera.

EI3.1 Bihotz-biriketako bizkortze oinarrizkoaren eta instrumentalaren oinarriak deskribatzea.

EI3.2 Aire-bidetik buxadura kentzeko teknikak deskribatzea.

EI3.3 Bihotz-biriketako bizkortze-teknika oinarrizkoak eta instrumentalak manikietan aplikatzea.

EI3.4 Bihotz-biriketako oinarrizko teknikak manikietan aplikatzea, oxigenoterapia-ekipoa eta desfibriladore automatikoa erabiliz.

A4: Lesiorik edo patologiarik ohikoenetarako eman behar den lehen laguntza identifikatzea, eta ezarritako protokoloen arabera ematea lehen laguntzako teknikak.

EI4.1 Lesiorik, patologiarik eta traumatismorik adierazgarrienak eta haiek prebenitzeko kontuan hartu beharreko alderdiak adieraztea, jarduerak egingo den ingurunearen arabera, honako alderdi hauek zehaztuta:

- Haiek eragiten dituzten arrazoiak.
- Sintomak eta zeinuak.
- Jarduteko jarraibideak.

EI4.2 Arriskua handiegia delako edo kasua beste profesional batzuentzako espezifiko delako zuzenean esku hartzea saihestu behar den kasuak eta/edo egoerak bereiztea.

EI4.3 Arriskua handiegia delako edo kasua beste profesional batzuentzako espezifiko delako lehen esku-hartzaileak bere kabuz aplikatu behar ez dituen teknikak bereiztea.

EI4.4 Hainbat motatako lesioak biltzen dituzten istripu simulatuetakozenbait egoeratan, alderdi hauek zehaztea:

- Jarduera-lehentasanak, lesioen larritasunaren eta motaren arabera.
- Aplikatu behar diren lehen laguntzako teknikak.

A5: Beharrezkoa izanez gero, istripua izan duena ebakutzeko aukera emango duten mobilizazio- eta immobilizazio-metodoak aplikatzea.

EI5.1 Istripua izan duena erreskatatzeko oinarritzko metodoak azaltzea eta aplikatzea.

EI5.2 Istripua izan duena lekualdatu behar denean aplikatu daitezkeen immobilizazio-metodoak azaltzea eta aplikatzea.

EI5.3 Istripua izan duena mobilizatzeari eta immobilizatzeari buruzko kasu praktiko bat —ezaugarriak behar bezala zehaztuak dituen— abiapuntua izanik, metodorik egokiena aukeratzea, istripua izan duenak izan litzakeen lesioak eta/edo istripuen inguruabarrak aintzat hartuta.

EI5.4 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan kasu praktiko batean, istripua izan duenari aplikatu beharreko jarrera-neurririk egokienak azaltzea eta aplikatzea.

EI5.5 Lekualdatze desegokiak istripua izan duenari ekar diezazkiokeen ondorioak azaltzea.

EI5.6 Gaixoak eta/edo istripua izandako pertsonak immobilizatze eta garraiatzeko esku-ohak eta sistemak egitea, material arruntak eta ez-espezifikoak edo halabeharrezko bitartekoak erabiliz.

A6: Istripua izan duenari eta haren ahaideei laguntza psikologikoa emateko teknikak aplikatzea.

EI6.1 Istripua izan duenarekin komunikatzeko oinarritzko printzipioak azaltzea.

EI6.2 Nortasuna babesteko mekanismoak eta haien erabilera praktikoa azaltzea.

EI6.3 Komunikazio-elementu desberdinak aipatzea.

EI6.4 Komunikazioa zailtzen duen eta istripua izandako bati laguntza ematen zaion egoera baten kasu praktiko bat — ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkana— abiapuntu izanik, pertsonen arteko komunikazioa errazteko teknikak aplikatzea.

A7: Estres-egoeretan autokontrol-teknikak aplikatzea.

EI7.1 Istripuko edo larrialdiko egoeretan antsietatea zer faktorek sorrazten duten aipatzea.

EI7.2 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan eta giro-tentsioko hainbat egoera adierazten diren kasu praktiko batean, helburu hauetarako erabili beharreko teknikak zehaztea:

- dolu-egoera bat kontrolatzeko
- antsietate- eta larritasun-egoerak kontrolatzeko
- agresibitate-egoerak kontrolatzeko.

EI7.3 Lehen laguntza eman eta emaitza onik ez den kasu batean (istripua izan duena hil egin da), laguntza eman dion pertsonak izan litzakeen estres-adierazgarriak deskribatzea, eta porrota psikologikoki gainditzeko ekintzak adieraztea.

Edukiak

1. Lehen laguntzaren oinarriak.

- Kontzeptuak:
 - Istripu, urgentzia eta larrialdi terminoen definizioak.
 - Lehen laguntza terminoaren definizioa.
- Lehen laguntzaren helburuak eta mugak.
- Lehen esku-hartzailearen alderdi etiko eta legalak:
 - Profila, gaitasunak eta jarrerak.
 - Etika profesionala eta kode deontologikoa.
 - Lege-esparrua eta erantzukizuna: arau zibilak, arau penalak.
- Lehen esku-hartzailearen jardura:
 - Esku hartzean sortzen diren arriskuak.
 - Esku hartzean izan beharreko segurtasuna eta babesa.
 - Kutsatzeen eta gaixotasunen prebentzioa.
- Lehen laguntzarako oinarritzko anatomia eta fisiologia:
 - Anatomiako eta fisiologiako oinarritzko kontzeptuak.
 - Arnas sistema, sistema kardiozirkulatorioa, sistema neurologikoa, digestio-sistema, sistema urogenitala, sistema endokrinoa, tegumentu-sistema, sistema osteomuskularra.
 - Zeinuak eta sintomak.
 - Oinarritzko medikuntza- eta osasun-terminologia.
- Lehen laguntzan laguntza psikologikoa emateko teknikak:
 - Psikologia orokorraren printzipioak.

- Komunikazioaren printzipioak: komunikazio-kanalak eta -motak, lehen esku-hartzaileen arteko komunikazioa, laguntzailearen eta istripua izandakoaren artekoa eta laguntzailearen eta ahaideen artekoa.
- Nortasuna babesteko mekanismoak.
- Gizarte-trebetasunak krisi-egoeretan: entzute aktiboa, erantzun funtzionala, komunikazio operatiboa.
- Biktimaren profil psikologikoa.
- Laguntza psikologikoa larrialdi-egoeretan: krisia, dolua, tentsioa, agresibitatea, antsietatea.
- Estres-egoerarako autokontrol-teknikak.
- Babes-mekanismoak.
- Antsietate-, agresibitate-, larritasun-, dolu- eta estres-egoerak gainditzeko autokontrol emozionaleko neurriak, teknikak eta estrategiak.
- Aurre egitea eta autozainketa.

2. Oinarrizko bihotz-biriketako bizkortzea eta gorputz arrotzengatiko aire-bidearen buxadura.

- Biziraupen-katea:
 - Larrialdiaren aktibazio goiztiarra.
 - Oinarrizko bihotz-biriketako bizkortze goiztiarra.
 - Desfibrilazio goiztiarra.
 - Zaintza aurreratu goiztiarra.
- Oinarrizko bihotz-biriketako bizkortzea:
 - Konorte-maila begiratzea.
 - Aire-bideak irekitzea.
 - 112ra deitu eta jakinaraztea.
 - Oinarrizko bihotz-biriketako bizkortzea hastea eta hari jarraitzea: bihotz-masajea, aireztapenak.
 - Kanpoko desfibriladore erdiautomatikoa erabiltzea.
 - Segurtasuneko saihezkako jarrera.
- Oinarrizko bihotz-biriketako bizkortzea kasu berezietan:
 - Haurdunak.
 - Bularreko haurrak.
 - Haurrak.
- Aire-bidearen buxadura:
 - Biktima bere kordean dagoela.
 - Biktima konorterik gabe dagoela.
- Oxigenoa aplikatzea.

3. Istripua izan duenari lehen laguntza emateko teknikak eta maniobrak.

- Paziente traumatikoa:
 - Lehen mailako ebaluazioa.
 - Bigarren mailako ebaluazioa.
 - Paziente traumatikoaren ebaluazioa.
 - Traumatismo torakoabdominalak.
 - Traumatismo kraneoenzefalikoak.
 - Bizkarrezurreko traumatismoak.
 - Immobilizazioak egiteko baliabide materialak.
 - Immobilizazioak.
 - Lekualdatzeak.
- Gorputz-adarretako eta atal bigunetako traumatismoak:
 - Gorputz-adarretako traumatismoak: irekiak, itxiak.
 - Atal bigunetako traumatismoak: ubelak, zauriak.
- Zirkulazio-arazoak:
 - Sinkopea.
 - Odoljarioak.
 - Shocka.
- Beroak edo hotzak eragiten dituzten lesioak:
 - Beroak eragiten dituen lesioak: intsolazioa, beroak eragindako nekea, bero-kolpea, erreduarak.
 - Hotzak eragiten dituen lesioak: hipotermia, izozketak.
- Hozkadak eta ziztadak:
 - Sugeen hozkadak.

- Arrainen hozkadak.
- Intsektuen ziztadak.
- Beste animalia batzuen ziztadak edo hozkadak.
- Urgentzia medikoak:
 - Orokorrak.
 - Espezifikoak: arnasa hartzeko zailtasuna, min torazikoa, egoera mentala aldatzea, abdomen akutua, intoxikazioak (arnasteagatik, xurgatzeagatik, irensteagatik eta injektatzeagatik), jokabide-arazoak.
- Uretan izaten diren itotzeetan eta lesio medularretan, ospitaleratu aurreko esku-hartzea:
 - 1. mailako itotzeetan.
 - 3. mailako itotzeetan.
 - 4. mailako itotzeetan.
 - 5. mailako itotzeetan.
 - Norbaitek lesio medularren bat izan lezakeenean.
- Lehen laguntzako botika-kutxa eta erizaindegia:
 - Botika-kutxaren kontserbazioa eta erabilera egokia.
 - Botika-kutxaren edukiak.
 - Erizaindegia: ezaugarriak, baliabide materialak (tresneria) eta oinarritzko farmakoak.

4. Behar bereziak dituzten biktimentzako, larrialdi kolektiboetarako eta katastrofeetarako laguntza.

- Behar bereziak dituzten biktimak:
 - Haurrak.
 - Adinekoak.
 - Desgaitasun fisiko, intelektual edo sensorialen bat duten pertsonak; desgaitasun anitzekoak.
- Larrialdi-sistemak:
 - Larrialdi-sistema integralak.
 - Babes Zibila.
 - Larrialdietako koordinazioa.
- Zirkulazio-istripuak:
 - Jarduera-hurrenkera.
 - Istripuan izandako zaurituen sailkapena.
 - Zirkulazioaren segurtasunarekin erlazionatutako baliabideak.
- Larrialdi kolektiboak eta katastrofeak:
 - sailkatze-metodoak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatara sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ur-ingurune naturaletako sorospena